


æk korrika-k
aurkezten du:

Oihaletxea



*"OIHALETXEA: IZ:
Behin behinean
bizitzeko balio
duen oihalezko
estalpea, oro har
egitura sendo bati
eta lurrari lotua".*



ZERGATIK OIHALETXEA.

2023ko apirilaren 18an 22 gaztek bizikleta martxa abiatu zuten Bordeleko errektoretzatik Baionara, iparraldeko ikasle euskal-hiztunek zikloen amaierako azterketetan sufritzen duten hizkuntz bazterketaren kontrako protesta gisa. Lau egunez Landak zeharkatu zituzten, gauak akanpalekuetan pasatuz, eta ibilbidea amaituta Baionan egitekoa zen manifestazioarekin bat egin zuten, une berean bi protestak uztartuz.

220 km ez dira asko, esango du baten batek, edo asko dira, nondik begiratzen den. Asko dira, adibidez, kontuan hartzen badugu gazteak 14-15 urte bitartekoak zirela, eta gehientsuenek ez daukatela bizikletan ibiltzeko ohiturarik. Asko dira, beste alde batetik, kontuan hartzen badugu ikasleak haiek izan zirela protesta irudikatu eta martxan jarri zutenak, iparraldeko ikastoletako ikasleek daukaten ideologizazio eta konpromiso maila agerian utziz. Haien gidari, Johane Larre, ziklista da bokazioz (lasterketak egiten ditu), eta euskaltzalea pasioz. Harena izan zen ekimena, eta beste 21 lagunek "segi" egin zioten, nolabait esateko. Iluntzeetan, akanpalekura ailegatu orduko, oihaletxeak muntatu eta hantxe pasatzen zuten gaua. Oihaletxeek, akaso, metafora gisa balio dute: etxe arinak dira, eraman egiten diutugu gurekin, eta lurrari lotzen zaizkio. Han lo egin nahi izanez gero, eguraldiari erreparatu behar diozu: zeu baino boteretsuagoa den botere aldakor eta apetatsu bati, alegia. Hauskorrak eta ahulak dira, baina edozein tokitan izan daitezke babesleku, abaro, aterpe. Geure hizkuntza, neurri batean, ez da da ba halakoxea? Erasotua handik eta hemendik, besteen menpe bizi da nahi baino gehiagotan, eta marko politiko irmo bat ez izateak ahuldadea ematen dio. Hala ere, aterpe izaten segitzen du, eguraldiak eguraldi eta erasoak eraso, milaka euskaldunontzat.

PROIEKTUAREN NONDIK NORAKOAK:

Euskaraz ikasten duten iparraldeko ikasleek sufritzen duten bazterkeria salatzen egunero egunero lan eta borroka egiten duen taldea omentzeko dokumental bat, 30 minutu ingurukoa.

ZUZENDARIA:

Lander Garro.

ESKEMA

HIRU ZATI NAGUSI izango ditu filmak.

1-

Baxoa frantsesez pasatzeari uko egin zioten hainbat ikasleren bizipenak.

PERTSONAIAK:

-Aitzol Gil de San Vicente eta Oneka Arteaga : Baxoa frantsesez egiteari uko egin zioten 2020eko ikasturte amaieran.

2-

Aurten Baxoa frantsesez derrigor pasa beharko duten hainbat ikasleren lekukotza.

PERTSONAIAK:

-Deizen Ngom Tendeng: Jatorri afrikarreko 18 urteko ikaslea da. Lau hizkuntza hitz egiten ditu, tartean Banbara.

-Tania Saraoui: Nafarra da izatez, Lizarrakoa, baina Baionan bizi da. Gurasoak madrildarrak ditu, biak erdaldunak. Ikertzaile kriminala izateko ikasiko du.

-Luma Amilibia eta Haitz Amilibia: Aita alabak dira. Batak baxoa frantsesez pasa zuen duela 30 urte, besteak orain pasako du.

3-

Brebeta pasatzeko adinean dauden ikasleen mobilizazioa, 2023ko udaberrian izan dena: 22 gaztek Bordeletik Baionarako bidea bizikletaz egin zuten, protesta gisa, azterketak euskaraz aldirrikatuz.

PERTSONAIAK:

-Johan Larre eta Jakes Larre: Aita semeak dira, eta Johaneke Bordeletik Baionarako bizikleta martxa antolatu zuen, azterketak euskaraz aldarrikatuz. Euskaltzalea eta ziklista da Johanne, eta 15 urte iza arren kontzientzia politiko handia du.

-Mailina Barbara-Agor eta Kima Goyhetché-Diribarne: Johanekekin batera bidaian joan ziren, haren ikaskideak dira.

-Gilen Saldumbide eta Idoia Iratzoki-Indaburu: Biak irakasleak dira.

-Mañolo Espellet: Ikastolako zuzendaria.